



Gipuzkoako udaletan harrera egiteko eredua



Gipuzkoa
BERRIA

2015ko maiatza

Gipuzkoako udaletan harrera egiteko gida

2015ko maiatza

Lege gordailua: SS-632-2015



Aurkibidea

●	Sarrera	5
1	HARRERA	
	1.1 Helburuak	6
	1.2 Printzipioak	6
	1.3 Ezaugarriak	8
	1.4 Zer lortu nahi da harrera eredu honekin?	9
2	HERRIETAN HARRERA EGITEKO EREDUA	
	2.1 Eman beharreko pausuak	10
	2.1.1 - 1. Urratsa	11
	2.1.2 - 2. Urratsa	12
	2.1.3 - 3. Urratsa	13
	2.1.4 - 4. Urratsa	14
	2.1.5 - 5. Urratsa	14
	2.1.6 - 6. Urratsa	18
	2.2 Herri txikietako udal barneko lehen harrera	22
3	UDAL ERAGILEEN FUNTZIOAK	
	3.1 Udal eragileen funtzioak	24
	3.2 Udal teknikarien edo langileen funtzioak	24



Sarrera

Udalek egiten duten lana ezinbestekoa da kultura aniztasuna era barneratzailean kudeatu ahal izateko. Hori dela eta, oinarrizko lan-ildoak markatu eta eguneroko lana bideratzeari begira, nahitaezkoa da Harrera eta Elkarbizitza Planak eta Programak abiaraztea eta harrera nahiz elkarbizitzari buruzko diskurtso bat eratzea.

Ildo horretan, garrantzitsua da eguneroko lanean baliagarriak izango diren baliabideak sortzea. Horren haritik, Udalanitz sareak harrera eredu bat prestatzeko beharra ikusi zuen, eta lan horri ekin zaio azken hilabeteetan. Harrera eredu osatzeko, metodologia parte hartzailea sustatu da. Lehenik eta behin, ereduaren zirriborro bat eratu du Aniztasun sailak; ondoren, udaletako teknikari eta hautetsiei zirriborroa helarazi eta beren ekarpenak egiteko aukera luzatu zaie; azkenik, eskualdekako bilerak antolatu dira guztion artean behin-behineko eredu osatzeko, Harrera Gidaren zirriborroaren nondik norakoak partekatuz eta esperientziak zein ezaguerak trukatu.

Zergatik harrera eredu bat eratzeko beharra? Aniztasuna era barneratzailean kudeatuko badugu, harreraren garrantzia azpimarratu beharra dago. Izan ere, udal orok eskaini beharreko oinarrizko zerbitzua izateaz gain, elkarbizitzako bidean eman beharreko lehen pausoa da; harrera ezin baita ulertu elkarbizitzaren ikuspuntu orokorra kontuan hartu gabe.

Hori horrela izanik eta harrera abiapuntu gisa harturik, gida honetan eredu zehatz bat planteatzen da. Bertan, harreraren helburuak, printzipioak, ezaugarriak eta aurrera eramateko pausoak jasotzen dira eta, halaber, udal eragile bakoitzak izan beharreko funtzioak definitzen dira eta herritarrekin egin beharreko lanari buruzko xehetasunak jasotzen dira.

Esan behar da Gipuzkoako hainbat udalek ibilbide desberdinak egin dituztela esparru honetan. Badira harrera oso landua duten herriak, eta hainbeste landu ez dutenak; izan ere, udal guztien errealitatea ez da berdina. Eredu hau tresna lagungarri bat sortzeko helburuarekin eratu da, bai harrera lantzen ari diren udalentsat, bai lantzen hasiko direnentsat. Gida bat da, udalen lanaren nondik norakoak ezarriko dituen oinarri eta printzipioak markatzen dituena; gauzatzeko erei dagokienez, udal bakoitzak bere herriko errealitatera egokitu beharko du azaltzen den eredu.

Gidan "bizilagun berria" kontzeptua aipatzen denean, herrira bizitzera etorritako pertsona berri oroz hitz egiten ari gara. Beti ere kontuan hartuz, jatorri jakineko pertsona batzuek, jatorri soilagatik, ez dituztela beste batzuen aukera berak.

1. HARRERA

1.1. Helburuak

Honakoak dira harrera eredu honen helburuak:

HELBURU OROKORRA:

- **Gipuzkoako herrietako teknikari eta politikariei harrera egiteko baliabide bat eskaintzea.**

HELBURU ZEHATZAK:

- Gipuzkoara bizitzera etorritako pertsonen harrera beharrei era zuzen eta parte hartzailean erantzutea.
- Harrerak eta elkarbizitzak guztion bizitzan duen eraginaz ohartaraztea, bai herritarrak, bai etorri berriak, sentsibilizazio eta hausnarketaren bidez.
- Herrira bizitzera etorritako pertsonen eta bertan aspalditik bizi direnen arteko harremanak bultzatzea, elkarren ezagutza eta aitortza sustatuz elkarreragin eta sentsibilizazioaren bidez.
- Administrazioan harrera egokiaren eskaintza bermatzea.
- Elkarbizitzarako lehen urratsak eta oinarriak finkatzea.
- Kultura eta hizkuntza desberdinen aitortza bermatzea eta euskara kohesio hizkuntza izan dadin sentsibilizazioa egitea eta baliabideak jartzea.
- Herreran eta jatorri eta kultura aniztasunaren kudeaketan bai herritarrak, bai erakundeak nola eragileak inplikatzeko.

1.2. Printzipioak

Aniztasuna kudeatzeko modua definituko duten elementuak dira printzipioak, udaletako lana gidatuko dutenak. Ondokoak dira:

PRINTZIPIO OROKORRAK:

- **Zeharkakotasuna:** nahiz eta kontu hau bideratzeko eragile batzuk proposatzen diren, udal osoaren eta herri osoaren ardura izango da harrera ongi egitea. Garrantzitsua da arlo guztietako arduradun edo gidariak kontu hau beren arloetan ere txertatuta izatea, guztien arteko koordinazioa eta elkarlana bultzatuz. Hala bada, sentsibilizazio eta prestakuntza saioak egitea beharrezkoa izango da, baita prestakuntza eta koordinazioa aurrera eramango duen pertsona bat ere.
- **Osotasuna:** desberdin izateko eskubidea; hau da, behar eta egoera desberdinak onartuko badira ere, harrera orokorra izango da, desberdintasunek markatu gabea. Herritar guztiak izango dira harrera honen hartzaileak eta protagonistak.



PRINTZIPIO ESPEZIFIKOAK:

- **Kultura eta Jatorri Aniztasuna:** aniztasuna sustatzea eta bermatzea, xede hauekin: elkarren arteko ezagutza, elkarriketa, gerturatzea, elkarrenganako errespetua bultzatzea eta kultura desberdinen arteko errespetua eta elkarren aitortza. Herri bakarra sortu nahi da, Gipuzkoa bakarra. Aniztasuna kohesiorako elementu estrategikoa izango da.
- **Bizikidetzatza/Elkarbizitza:** bizilagun berriei Euskal Herriaren eta herriaren historia, ezaugarriak eta bilakaera ezagutzera ematea, haiek ere herriaren parte direla aitortuz. Eta aitziki, berek ere beren herriaren historia eta ezaugarriak gainerakoekin parteka ditzaten guneak eskaintzea.
- **Parte hartzea:** alde batetik, bizilagun berriek gainerako herritarrekin batera parte har dezaten bultzatzea; eta bestalde, herriko eragileen parte hartzea sustatzea. Horren haritik, pertsonen protagonismoari eta zuzenean parte hartzeko duten eskubideari begirunea izatea sustatzea, jabetze edo ahalduntze guneak eta dinamikak sortuz.
- **Elkarren ezagutza/Elkarren aitortza sustatzeko espazioa eta ekintzak artikulatzea:** jendarte plural batean bizitzearen kontzientzia sustatzea, bizilagun berrien eta bertako pertsonen eta kolektiboen artean.
- **Aukera berdintasuna:** herritar guztiek eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte, jatorria inondik inora ez delarik ezberdintasun arrazoi izango. Horrez gain, garrantzi berezia emango zaio emakume eta gizonen arteko berdintasunari; izan ere, bizi dugun sexu-genero sistema honek emakumeak sistematikoki diskriminatzen dituenez, atal honek bere "espazio" propioa behar duela uste dugu.
- **Genero ikuspegia:** egungo gizarte patriarkalaren baitako genero sistema emakumeenganako desberdintasun egoera eta diskriminazioaren euskarria da. Generoagatiko diskriminazioa bestelako diskriminazio arrazoi batzuekin (jatorria, erlijioa, kultura, pentsaera, sexu joera, etab.) uztartzen denean, diskriminazio bikoitza edo hirukoitza jasaten dute emakumeek.
- **Euskara, kohesio hizkuntza:** Gipuzkoan, Euskal Herriko gainerako lurraldeetan bezala, euskararen egoeraz kontziente izan beharra dago eta, hizkuntzak bizirik iraungo badu, neurriak jarri behar ditugu. Aurretik aipatu dugu kultura desberdinekiko aitortzaren garrantzia; ildo horretan, Gipuzkoako hizkuntza oro aitortuak izango dira, eta euskarak jasan duen zapalkuntza aitortua izango da, baita horren ondorioz eman beharreko bultzada ere. Hori dela eta, euskarak elementu komuna izan behar du kultura eta hizkuntza desberdinen artean, hau da, komunikazio eta elkarbizitzarako hizkuntza.

EUSKARA

Estrategia: Administrazioek garbi adierazi behar dute euskarak berdintasun eta jendarte kohesiorako elementua izan behar duela. Eta hala izan dadin, harrera eratzeko prozesuan neurriak jartzeaz gain, ondoko irizpide hau azpimarratuko da:

Euskara presente egongo da dinamika guztietan eta, komunikazio arrazoiak direla eta, euskara erabili ezin denean, euskararen garrantzia azpimarratu eta hausnarketa bat bideratuko da horren erabileraren garrantziari buruz.

Ildo horretan, harreraren eratze eta gauzatze prozesuan zehar praktikan jar daitezkeen hainbat adibide planteatzen ditugu:

- Harrera egiterakoan lehen hitzak euskaraz egitea; solaskidea euskaraz oraindik ez bada ondo moldatzen, hainbat estrategia erabil daitezke (adibidez, itzulpengintza sistema). Sinpatia eta enpatiaz jokatzeko ezinbestekoa da.
- Bizilagun berriari euskararen berri ematea, eta hizkuntza ikasteko dauden aukerak eskura jartzea (adibidez, GFAko hiztegitxoak).



- Elkarbizitza Mahaian edo Sarean euskara oinarrizko hizkuntza izatea; ulertzen ez duten pertsonak egonez gero, estrategia desberdinak erabiltzeko ahalegina egitea, gaztelaniara pasa baino lehen.
- Elkarbizitza Mahaian edo Sarean, euskararen erabilerari buruzko hausnarketak egitea, eta hizkuntza komuna guztientzat eskuragarri izan dadin baliabideak prestatzeko lan egitea.

GENERO IKUSPEGIA

Estrategia: Genero ikuspegia kontuan hartuko da harreraren fase guztietan. Prozesuan zehar emakumeen presentzia bermatzeaz gain, hausnartu egingo da gertatzen diren desberdintasun egoerei buruz, eta kontuan hartuko dira emakumeen beharrak, errealitateak, ikusmoldeak, etab.

Harrera martxan jartzeko prozesuan, beraz, beharrezkoa izango da:

- Emakumeen presentzia, jabetzea, parte hartzea eta ikuspuntua bermatzea Elkarbizitza Mahaian edo Sarean.
- Bizilagun berrien kasuan, bai erroldako momentuan bai “ongi etorri” bileretan, udalak emakume etorri berriekin zuzeneko harremana bilatuko du eta horretarako bitartekoak jartzen ahaleginduko da (adibidez, itzulpengintza sistema). Haurrak ere etorriko dira “ongi etorri” bileretara.
- Elkarbizitza Mahaian edo Sarean hausnartu egingo da aukera desberdintasunaz eta zapalketa mekanismoei buruz, horien sorburua edozein dela (jatorria, generoa...).
- Emakumeentzako Guneak sortuko dira.

1.3. Ezaugarriak

Harreraren ezaugarriei dagokienez:

- Herritarrek parte hartuko dute diseinuan, gauzatzean eta balorazioan.
- Herritarren arteko elkartasuna, elkarren ezagutza, elkar ulertzea eta elkarbizitza sustatuko du.
- Udal barneko sail guztien arteko elkarlana, koordinazioa eta komunikazioa sustatuko ditu.
- Administrazioaren parte hartzea eta konpromisoa bermatuko ditu.
- Baliabideak eta azpiegiturak eskainiko ditu.
- Kultura desberdinei buruzko ezagutza eta horien aitortza sustatzeko baliabideak eskainiko ditu.
- Elkarbizitzarako guneak sustatuko ditu.



1.4. Zer lortu nahi da harrera eredu honekin?

Harrera eredu honekin ondokoa lortu nahi da:

- Gipuzkoako udal guztietan harrera bermatzea (harrera instituzionala gutxienez).
- Egun eskaintzen den harreraren kalitatea eta izaera hobetzea.
- Herriko hainbat eragilek, instituziok eta herritarrek harreran duten ardura ikusarazi, eta gauzatzeko urratsak ematea, elkarren arteko harremanak eta ezagutza direla bide.
- Kultura desberdinen arteko harremanak indartzea.
- Bizilagun berriei, herritar izaera onartzea, eta ahalik eta harrera egokiena ematea**
 - › Inguruneko baliabideen gainean behar bezalako informazioa ziurtatzea.
 - › Udalerrietako hainbat arlotara –kultura, hizkuntza, gizartea, geografia, ohiturak...– hurbiltzeko prozesua erraztea.
 - › Informazioa ematea eroldatzeko izapideei buruz eta horren ondorioez, baita bizilagun berrien eskubideez eta bete beharrez ere (eskubide subjektu izaera bermatuz).
 - › Bizilagun berriak subjektutzat ulertzea herriko mekanismoetan parte hartzerakoan, eta horretarako bidea erraztea.
 - › Bizilagun berrien eskaerak eta beharrak kontuan hartzea dagozkien sailetan.
 - › Bizilagun berrien eta herritarren arteko elkar ezagutza bultzatzea.
- Euskara ikasteko baliabideak eskaintzea.
- Elkarbizitzarako oinarriak ezarri eta lehen urratsak ematea.

***Kontuan hartu beharra dago hainbat bizilagun berri desberdintasun egoerak bizi dituztela beren jatorria dela eta; izan ere, haietako askok ez dute nazionalitatea eta horrek eskubideak eta aukerak murrizten dizkie. Hori kontuan hartuta, bizilagun berriari herritar izaera aintzatetsi behar zaio udalean –dituen eskumenean barnean–, eta era berean desberdina izateko eskubidea bermatuko zaio.*

2. HERRIETAN HARRERA EGITEKO EREDUA

Lehenago ere esan dugu nola ulertu behar den harrera: bizilagun berriari nahitaez eman beharreko gutxieneko zerbitzu gisa. Horretaz gain, elkarbizitzarako lehen urratsa ere bada zeren eta, urrats hori elkarbizitzaren barnean ez ulertuz gero, zerbitzu bakartu gisa eskaintzeko arriskua baitago, momentu jakin batean eskaini beharrekoa.

Beraz, herrira bizitzera etorritako bizilagun berriari zerbitzu baten eskaintza izateaz gainera, harrera elkarbizitzarako oinarriak finkatzeko une edo prozesu gisa ere ulertu beharra dago. Hausnarketa prozesu gisa.

***Harrera egiteko garaian, ezinbestekoa da bi esparru bereiztea eredu honen planteamenduan. Alde batetik, harrera instituzionala, udal batek nahitaez eman beharrekoa; hori aurrera eraman ahal izateko protokolo bat proposatzen dugu, udal ibilbide guztia egin ondoren "ongi etorri" bilera batean amaituko dena. Bestalde, harre-ran sakontzeko saioak daude: saio horiek harrera aberastuko dute eta ezinbestekoak izango dira elkarbizitzan urratsak emateko.*

2.1. Herri handi eta ertainetako udal barneko lehen harrera. Eman beharreko pausoak

Udaletan harrera modu integralean gerta dadin eta elkarbizitzaren ikuspuntu orokorraren barnean landu dadin, lagungarriak izan daitezkeen **sei** urrats aipatzen dira ondoko lerroetan.

Urrats horiek prozesu integral baten barnean kokatzekoak dira, esperientzia desberdinetatik abiatuta planteatzen den egiteko era bat, eta ikusitako beharren arabera finkatu direnak. Harrera egingo duten udalek, orientatzeko tresna gisa erabili ahal izango dute. Herri bakoitzak, alabaina, bere herrira egokitu beharko du; izan ere, baliabideak, errealitatea, etab. aldatu egiten dira udaletik udalera.

Kasuan kasuko moldaketak egitea ezinbestekoa izango da gehienetan. Adibidez, baliabide nahikorik izan ez eta prozesu integral bat martxan jartzeko konpromisoa hartzen ez duten udalen kasuan, udal barneko harrera protokolotik abiatu beharko dute; bestalde, harrera landuta duten herriak eta ez sentsibilizazioa burutu, ez mahaia eratu ez dutenek, aldiz, bide desberdinak jorratu beharko dituzte mahaia eratzeko eta sentsibilizazioari begira. Hau da, aipatzen diren urratsak zurruntasunez bereganatzea baino areago, harreraren nondik norakoak ulertzea eta zeinek bere herriko errealitatera egokitzea izango da udaletako politikari eta teknikarien eginbeharra.

Aurrez aipatutako urratsak hurrengo lerroetan laburbiltzen dira, nahiz eta geroago puntuz puntu sakonduko diren.

Borondate politikoaren bidez, harrera landuko dela erabaki ostean, teknikari arduradunak, herriko ezaugarriak kontuan hartuz, harrera eredu bat diseinatuko du herrirako, txosten honetan aipatutako printzipio eta ezaugarrietan oinarriturik. Teknikariak landutako diseinuan kontuan hartuko dira udal langileak, hainbat eragile eta erakunde eta herritarrak, eta harreraren zeregina azpimarratuko da.

Hala, diseinuaren zirriborroa aurkeztuko zaie udaleko hainbat saili eta hainbat eragile eta erakunderi eta herritarrei, hartarako prestatutako sentsibilizazio eta hausnarketa saioen bidez. Saioetan parte hartutako jendearekin mahai bat eratuko da, Diseinu Mahaia. Horrenbestez, harrera ereduaren behin-behineko diseinua egitea izango da Mahai horren funtzioa.

Behin harreraren behin betiko diseinua egina izanik, harreraren parte hartuko duten protagonistak identifikatuko dira, eta harrera eredu aurrera eramateko lantalde bat osatuko da horiekin, Lantalde Exekutiboa. Harreraren zehar landu beharreko gai eta aspektu desberdinei ekingo zaie lantalde horretan, eta ondoko helburu hauek izango ditu: harrera aurrera eramatea, prozesua baloratzea edota hobetzea eta harrera prozesuan parte hartu-



ko duten sail eta lan esparruen arteko koordinazioa egitea.

Lantalde horretaz gainera, beste talde bat izango da, Talde Motorra izendatu duguna. Bertan interesa duen edonork parte har dezake; talde horrek ondoko helburua izango du: harrerari jarraipena egitea eta elkarbizitzarekin lotutako gaiak jorratzea, baliabideak sortuz nahiz ekintzak antolatuz. Modu horretara, harreratik elkarbizitzarako pausoa bermatuko da, eta elkarbizitzarako lehen zimenduak eraikiko dira.

Azkenik, Osoko Bilkura edo aniztasun sare zabala egongo da, eta herriko erakunde eta eragile aktiboekin sare zabal bat osatzea izango du eginkizun. Elkartze maiztasuna murrizta izango da, eta informazioa eta erantzukizunak banatzea izango du egiteko nagusia.

***Urratsak eratzera, herri ertain eta handiak (5.000 biztanletik gorakoak) hartu dira kontuan, eta egokitzen egin da herri txikiei begira. Herri txikien errealitatea islatzearen garrantziaz jakitun gara eta, alde horretatik, hausnarketa eta eraketa prozesu bat ezinbestekoa da bai Udalanitz sarean, baita Aldundian bertan ere.*

1. URRATSA

Udalan, aniztasuna eta migrazioa kudeatzeko bidean, harrera martxan jartzea erabakitzea. Lehen urrats honetan, lidergo politikoa ezinbestekoa izango da harrera martxan jartzeko, udalaren erabakia beharrezkoa baita.

- **Borondate politikoa** beharrezkoa izango da, hortaz. Teknikari, herritar, eragile eta erreferentziako pertsonen egin dezakete eskaria, borondate politikorik ez dagoen kasuetan.
- Behin udalak harrera egingo duela erabakiz gero, gutxieneko batzuk ezarri beharko ditu. Printzipioak eta jarraibide batzuk markatzeaz gain, teknikariei eginbeharrak azalduko dizkie eta teknikari arduradun bat izendatuko du.
- Lehen urrats hau oso garrantzitsua da harrera integrala nahi dugulako eta udal guztien inplikazioa ezinbestekoa delako.

NOLA EGIN?

Borondate politikoa bermatzeko hainbat bide daude; hona hemen proposamen batzuk:

Konpromiso edo neurri batzuk zehaztea dokumentu batean, hala nola:

- "Udalanitz Sare"-ko partaide izanik, udalek modu aktiboan parte hartzeko konpromisoa hartzea.
- Aniztasunari dagokionez, Udalbatzak onartutako "Aniztasunaren aldeko Plan edo Programa" bat eratztea. Horrenbestez, komenigarria litzateke egindako ibilbidearen memoria labur bat idaztea.
- Aniztasunaren arloan esperientzia edota gaitasun zehatza duten langile teknikoak izatea, aniztasunaren aldeko plan edo programa hori sustatzearen.
- Aurrez esandakoa Osoko Bilkuran adostea.

Borondate politikoa gauzatzeko, ezinbestekoa izango da baliabideak jartzea. Hori dela eta, harrera aurrera eramango duen teknikari bat izendatzea edota kontratatzea izango da hartu beharreko lehen neurria.

Udalan jadanik lanean ari zen teknikari bat izendatzekotan, lan ordu zehatzak egokitu beharko zaizkio arlo honetako lana aurrera eraman dezan (harrera diseinatzea, jendarteratzea, sentsibilizazio saioak egitea, lantaldeak sortzea, lantaldeak dinamizatzea eta egunerokoan sortuko diren gainerako zereginenez arduratzea).



2. URRATSA

Harreraren diseinuaz, eraketaz eta ezarpenaz arduratuko den **teknikariak**, beraz, **errealitatearen diagnostia egingo du eta harrera zirriborroa diseinatuko du.**

Teknikariak kontuan hartu beharko ditu udalaren eta herriaren ezaugarriak (udaleko sailak, partaidetza taldeak, lantaldeak, herriko eragileak, dauden sinergiak, herriko bestelako erakundeak, herritarrak, horien parte hartzea, etab.) eta dauden beharrak (hutsuneak, elkarbizitza oztopatzen dituzten alderdiak, etab.); gero, diagnostikoa egingo du eta, azkenik, harrera protokoloa eta saioen diseinua mamituko ditu.

Diseinu horretan, parte hartzaile bakoitzari –teknikaria, udal sailtako langileak, eragileak eta bestelako erakundeetako ordezkariak, herritarrak– harreraren egokituko zaion ardura nabarmenduko du. Udaleko eta herriko eragileek harreraren ardura eta zeregin jakina izateak erraztu egingo du horien parte hartzea.

Herrira etorritako bizilagun berriari, herriko alderdi desberdinei buruzko informazioa azaltzeko guneak eratzea izango da udaleko hainbat esparrutako profesionalak harrera saioetan inplikatzeko modurik egokiena; era horretara, eragile, erakunde eta herritar bakoitzak, nor bere alderdiari buruzko informazioaren ardura hartuko du bere gain.

Harrera saioetan, adibidez, irakasle bat inplikatzeko hezkuntzari buruz hitz egin dezan.

Teknikariak, harrera eredia diseinatzerakoan hurrengo orrialdeetan agertzen diren urratsak hartuko ditu kontuan (urrats bakoitza nola diseinatu, datozen orrialdeetan sakonduko da).

Harrera eredia sortzeko prozesuaren fase guztietan jatorri desberdineko pertsonen partaidetza landuko da, eta hausnarketa egingo da herritar guztien eskubideei buruz.

KONTUTAN HARTU BEHARREKOAK

Diagnostikoa jasotzeko beharrezkoak:

- Herriaren ezaugarriak
- Udalaren osaketa
- Herriko bestelako erakundearen ezaugarriak eta harremanen balorazioa
- Herriko eragilearen ezaugarriak eta harremanen balorazioa
- Herrian aniztasunaren kudeaketan egin dena eta egiten ari dena
- Udalean nahiz herri mailan dauden ekiteko aukerak

Diagnostikoa egiterakoan, soziograma tresna erabilgarria izan daiteke

Harreraren diseinua:

- Sentsibilizazioaren diseinua
- Lantaldearen eraketa eta harreraren behin betiko diseinua
- Harreraren lantalde exekutiboa eta talde motorra eratzea
- Harrera gauzatzea eta elkarbizitza lantzea (jarraitutasuna bermatzea)

Sentsibilizazioa eta diseinuaren lanketa saio beretan egin daiteke, zein diseinu planteatzen den



GENERO IKUSPEGIA

Harreraren fase bakoitzean kontutan hartuko da genero ikuspegia. Prozesuan zehar emakumeen presentzia orekatua bermatzeaz gain, ematen diren ezberdintasun egoeren inguruko hausnarketa egingo da, emakumeen beharrak eta ikusmoldeak kontuan izanik, ezberdintasun egoerei aurre egiteko neurriak hartuz.

Harrera diseinatzeaz arduratuko den teknikariak, berdintasun teknikaria dagoen Udaletan, honen aholkulartza jasotzea komeni da.

EUSKARA

Euskarari dagokionez ere, harreraren fase bakoitzean euskara kohesio elementu, eta, komunikaziorako hizkuntza izatea bermatuko da, honetarako estrategia ezberdinak martxan jarritz.

Posible ez den kasuetan gazteleraz egingo da, baina beti ere hausnarketa bat aurrez eginaz, euskara hizkuntza komun denaren ideia landuz, eta, bideko estrategia bat dela kontziente izanik.

Euskararen inguruko hausnarketak aurrera eramango dira fase bakoitzean.

3. URRATSA

Harrera zirriborroa landuko da eta hausnarketa, formazioa edo sentsibilizazio saioak egingo dira udaleko ordezkari politikoeekin eta **udal langile edo teknikariek**in.

Ezinbestekoa da udalaren kudeaketaz arduratzen diren ordezkari eta langileek gogoeta egitea aniztasunaren eta migrazioaren kudeaketari buruz, kudeaketa hori integrala, zeharkakoa eta egokia izan dadin.

Harrera protokoloa martxan jarri aurretik, oso garrantzitsua da, halaber, teknikari arduradunak harreraren gainean egin nahi den lanketa azaltzea, bai udaleko sailetan, bai arduradun politikoen artean. Harrera protokoloan nahiz saioetan, sailek eta arduradunek duten ardura azalduko zaie, eta haien funtzioei buruzko hausnarketa bat egingo da.

Saio horietan garrantzitsua izango da, halaber, oinarritzko printzipio batzuk eta esperientzia pertsonalak partekatzea; ildo horretan, prestakuntza saioak antolatzea aukeretako bat izango litzateke.

Aurkezpen, hausnarketa eta sentsibilizazio saioak:

- Hausnarketa pertsonala; norberaren esperientzia eta posizionamenduari buruzko gogoeta egitea, kontzientzia hartzea eta baliabideak eskuratzea.
- Aniztasunari buruzko oinarriak landu eta bermatzea. Ondoko gaiak landu daitezke: euskararen garrantzia eta sustapena; kultura aniztasunaren bermea eta sustapena; aukera berdintasunaren bermea; subjektuen protagonismoa eta zuzenean parte hartzeko bermea; aukera berdintasuna eta desberdintasunerako eskubidea; zeharkakotasuna, etab.
- Sail bakoitzak harreraren izango duen zeregina lantzea, eta, harreraren behin betiko diseinua lantzea.



KONTUTAN HARTU BEHARREKOAK

Sentsibilizazio saio horiek, hortaz, behin betiko diseinua eztabaidatzeko saio bezala erabil daitezke. Lanketa horren bidez sentsibilizatu daiteke eta.

4. URRATSA

Harrera zirriborroa landuko da herritarrekin, herriko erakundeekin, gizarte eragileekin eta erreferentziako pertsonekin eta hausnarketa, prestakuntza edo sentsibilizazio saioak egingo dira. Era horretara, hausnarketa eta zabaltze prozesu bat sustatuko da herrian.

Udal ordezkari eta langileez esandakoaren ildotik, garrantzitsua da herriko erakundeekin, eragileekin eta herritarrekin aniztasun eta migrazioari buruzko hausnarketa bat aurrera eramatea. Horrenbestez, teknikariek hasieran diseinatutako harrera zirriborroa landuko da saio batzuen bitartez, hainbat eragileren ardura azalduko da eta haien funtzioei buruzko hausnarketa bat egingo da.

Ondoko gai hauek jorratuko dira:

- Hausnarketa pertsonala; norberaren esperientzia eta posizionamenduari buruzko gogoeta egitea, kontzientzia hartzea eta baliabideak eskuratzea.
- Aniztasunari buruzko oinarriak landu eta bermatzea. Ondoko gaiak landu daitezke: euskararen garrantzia eta sustapena; kultura aniztasunaren bermea eta sustapena; aukera berdintasunaren bermea; subjektuen protagonismoa eta zuzenean parte hartzeko bermea; aukera berdintasuna eta desberdintasunerako eskubidea; zeharkakotasuna, etab.
- Erakunde, eragile eta herritarrek harreran izango duten zeregina azaltzea eta behin betiko diseinua lantzea.

Euskararen eta genero ikuspegiaren inguruko hausnarketa bat ere emango da saio hauetan.

KONTUTAN HARTU BEHARREKOAK

Sentsibilizazio saio horiek, hortaz, behin betiko diseinua eztabaidatzeko saio bezala erabil daitezke. Lanketa horren bidez sentsibilizatu daiteke eta.

5. URRATSA

Harrera eta elkarbizitza sarea sortuko da. Behin udal barnean eta jendartean gaia landu ondoren, eragile eta erreferentziako pertsona guztiak bilduko dituen sarea antolatzea izango da ondoko urratsa. Interesa duten herritarrez osatutako sare horrek herriko aktoreak hartuko ditu bere baitan: udal ordezkariak, gainerako erakundeetako ordezkariak, herritarrak, gizarte eragileak eta erreferentziako pertsonak.

Sare hori osatzeko, harrera beharren arabera hainbat lantalde eratzea planteatzen da eredu honetan:



1. Mahaia: Diseinu lantaldea.

- a. Goian aipatu dugun bezala, diseinuaren zirriborroa sentsibilizazio saioetan landu daiteke, era horretara, sentsibilizazioa helburu baten barnean gertatuko da (hartarako, 2-3 sentsibilizazio saio beharko lirateke).
- b. Beste aukera bat : sentsibilizazio saio bat egin ondoren, udal ordezkari-langileak eta herriko erakundeak zein eragileak hartuko dituen diseinu mahai bat eratzea (hau da, sentsibilizazio saio bat eta diseinu taldea eratzea. 2-3 saio).
 - i. Lantalde horrek teknikariak prestatutako zirriborroari buruzko hausnarketa eta lanketa burutuko du, eta behin betiko harrera protokoloa eta saioak eratuko ditu (teknikari arduraduna izango da, dinamizazioaren bidez eta ekarpenak jasoz, behin betiko diseinua egingo duena).

2. Mahaia: Lantalde exekutiboa: Behin diseinu definitiboa eginda, harrera saioetan zeregina duten pertsonen lantalde bat osatuko dute.


- a. Lantalde exekutiboa eratu ahal izateko, harrera arduradunak izendatu behar dira.
- b. Horren funtzioa: harreraren diseinua aurrera eramateko plangintza egitea, harrera saioak gauzatzea eta harreraren parte hartuko duten pertsonak koordinatzea.
- c. Talde exekutiboa eratzerakoan, kontuan hartu beharko da bai udal barneko harrera, baita harrera saioak ere (harrera sare integrala).

3. Mahaia: Talde Motorra, interesa duten pertsoez osatua. Lantalde exekutiboaren jarraipena egingo du, harreraren balorazioa egingo du eta elkarbizitzarekin lotutako bestelako gaiak jorratzeaz arduratuko da; horretarako, hausnarketa saioak eta bestelako ekintzak antolatuko ditu.

- a. Talde honek, harrera saioetatik ateratako beharrak jasoz eta erantzuna emango die elkarbizitza beharrei.
- b. Herrian erreferentziako taldea izango da aniztasuna eta elkarbizitza lantzeko.

4. Mahaia: Osoko Bilkura edo aniztasun sare zabala egongo da, eta herriko erakunde eta eragile aktiboekin sare zabal bat osatzea izango du eginkizun.

- a. Elkartze maiztasuna murriztu izango da, eta informazioa eta erantzukizunak banatzea izango du egiteko nagusia.





KONTUTAN HARTU BEHARREKOAK

Diseinua herri bakoitzaren errealitatearen arabera izango da.

Ez dago mahai guztiak eratu beharrik, baina hemen aukerarik osoena jarri dugu, eredu den aldetik. Udalerrian mahai edo lantalde bat eratzeko garaian hainbat kontu hartu beharko dira kontuan. Lehenik taldea eratzeko ahalmenik badagoen ikusi behar, eta horretarako eragile eta erakundeen errealitatea ezagutu beharko da. Bestalde, jadanik bestelako partaidetza mahai edo lantalderik badagoen aztertu beharko da, edo beste lantalde bat eratu eta jadanik badaudenek egindako lana baloratu.

Beraz, mahaia edo lantaldea eratzekoan komenigarria da:

- Mahaiaren/Sarearen helburuak hasieratik finkatzea.
- Herri bakoitzak bere errealitatearen arabera taldeak eratzea:
 - › Talde teknikoak.
 - › Herritar taldeak.
 - › (...)
- Esan bezala, jadanik herrian osatuta dauden taldeez edo gunez baliatzea.

Jatorri ezberdineko pertsonak mahaietan parte hartzea bermatuko da, edukiak errealitate ezberdinen behar eta nahietara egokituko direlarik. Jatorriaren baitan parte hartzeko ematen diren zailtasunen inguruan hausnartuko da. Aukera berdintasuna, eta, ezberdin izateko eskubidea landuko dira, eta, jatorri ezberdineko pertsonen arteko elementu komunak landuko dira, zatiketa elementuen inguruko hausnarketa bat eginez.

GENERO IKUSPEGIA

Emakume eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, eta emakume eta gizonen arteko eginkizun eta arduretan parekidetasuna izango da. Lan taldeen funtzionamenduari dagokionez, saiatuko da, lantaldeen jardura zainketa ardurekin uztartzea.

EUSKARA

Azkenik, euskara izango da lantalde hauen hizkuntza estrategia ezberdinak erabiliko direlarik. Posible ez den kasuetan denok ulertuko duten hizkuntzan burutuko dira, baina ez aurretik, euskararen inguruko hausnarketa bat burutu gabe. Euskara kohesio elementu izatearen garrantzia landuko lantaldeetan.



Hona hemen taldea eratzeko kontuan hartu beharreko hainbat erakunde eta elkarte. Taulan ez egon arren, ezin dira ahaztu erreferentziako herritarrak edota gaiaz interesaturik daudenak.

ARLOA	ERAKUNDEA	ELKARTEA
Osasungintza	Osakidetza	Osasun elkarteak
Enplegua	INEM, Lanbide	Sindikatuak, afektatuak...
Kultura	Kultura Etxea, Musika Eskola, Liburutegia, KZ Gunea	Dantza, musika, historia, herriko kultura, artea, literatura, etab.
Euskara	Euskaltegiak	Euskara elkarteak
Hezkuntza	Eskolak, ikastolak, formazio eskolak, EPAk,	Guraso elkarteak, prestakuntza alternatiboa, etab.
Emakumeentzako jabetze eskolak	Emakumeentzako jabetze eskolak.	Elkarteak
Gazteria	Gaztetxokoak, harrera etxeak	Gaztetxea, gazte elkarteak
Kirola	Kiroldegia eta bestelako kirol instalazioak	Kirol elkarteak, mendi elkarteak, etab.
Soziala		SOS Arrazakeria, krisia, justizia soziala, desberdintasun sozialak, giza eskubi-deak.
Beste	Psikologoek Elkargoa, Abokatuak Elkargoa	Ostalaritza elkarteak, auzo elkarteak, giza eskubideak, ekonomia, ekologismoa, ongizate pertsonala, etab.
Jatorri askotariko elkarteak edo pertsonak (esperientzia pertsonala, eskubideak)		

6. URRATSA

Harrera martxan jartzea

Demagun orain arte ereduari planteatu diren urratsak bururatu direla udalean. Horrenbestez, diseinuaren zirriborroa egina egongo da, baita udalera nahiz herrira zabaldua ere sentsibilizazio saioen bidez; teknikari, langile, elkartekide eta herritarrek harreraren duten garrantzia azpimarratu da eta sentsibilizazio saioetako parte hartzaileekin diseinu mahaia eratu da, baita, bertan, harreraren behin betiko diseinua garatu ere. Harreraren parte hartuko duten pertsonekin lantalde exekutiboa eratu da eta harreraren jarraipenaz nahiz elkarbizitzarekin lotutako bestelako gaiez arduratuko den talde motorra martxan jarri da. Harrera martxan jartzerakoan, bialdi bereizten dira; harrera prozesu osoan bezala, eta harreraren bi esparruak kontuan hartu beharko dira. Udal barneko harrera eta harrera saioak edo harrera integrala.

Ondoko urratsa zera izango da, diseinatu den harrera aurrera eramatea; hori egiteko, nahitaezkoa izango da




sortutako sareez baliatzea. Urrats hau ematerako garaian bi aldi bereizi behar dira: udaleko harrera lehena eta “ongietorri” saioak bigarrena.

1.Udaleko harrera: Bizilagun berria, udalera erroldatzera edo informazio bila joango den lehenengo aldian jarriko da martxan. Bizilaguna udalera sartzen den momentutik herritar izaera ematea da udal harreraren helburua; xede horretan, herriari buruzko informazio zehatza eman eta erakundearen aurkezpena egiteaz gain, bizilagun berriak behar dituen beharrei erantzungo zaie, era horretara aukera berdintasuna bermatuz. Fase honetan ezinbestekoa da udaleko teknikari guztiek harreraren garrantzia barneratzea, bizilagun berriaren beharrak edozein arlotakoak izan baitaitezke.

Udal barneko harrera fase honetan, bizilagun berriari informazioa emateaz gain, bera gehiago ezagutzeko aprobetxatuko da eta “ongietorri” saioetarako baliagarria izango den informazioa jasotzen ahaleginduko gara.

Goian esandakoa aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa izango da udal barneko harrera protokolo bat diseinatzea (diseinu mahaian egina izango dena). Ildo horretan, Udalanitz sarean 2012 urtean zehar egindako saioen artean, egoki iritzi diogu Emun Kooperatibak eraturako harrera protokoloa hona ekartzeari. Hala ere udal bakoitzean teknikariak diseinatu beharko du eta, harrera mahaian landu ondoren, udalera egokitutako protokoloa prestatuko du.





GENERO IKUSPEGIA

Harrera egiterako garaian, bai ongi etorri bileretan, zuzeneko harremana egiteko modua bilatu beharko litza-ke, itzultzaileak jarritz. Emakumeen kasuan honek garrantzia handia du, bere familiako batek bitartekari lana eginez gero ez direlako beharrak zuzenean jasotzen.

NOLA EGIN?

Eskutitza

1. Eskutitza, modu pertsonalizatuan zuzenduko zaio bizilagun berriari. Familia bada, familiako kide bakoitzari. **Gonbita familia osoari pasako zaio, ez soilik gizonetakoari.**
2. Euskaraz eta bizilagun berriaren hizkuntzan idatziko da; esaldi laburrak eta argiak erabiliko dira; edukia irudien bidez arinduko da. Bizilagun berriaren hizkuntzan egitea ezinezkoa den kasutan, aukera gisa, euskaraz eta erdaraz egitea planteatzen da. Honen haritik, itzulpeningintza sistema baten aukera aztertzea gomendatzen da.
3. Bizilagun berriari “Ongietorri bilera”-rako gonbita egitea izango da eskutitzaren funtsa, eta bertan herriari buruzko informazioa zuzen emango zaio.
4. Ahal den kasuetan, eskutitza eskura emango zaio bizilagun berriari.

Galdetegia

- Eskutitza eta “ongietorri” bilerak pertsonalizatzeko tresna izango da, eta informazioa emango digu bizilagun berriaz.
- Bestalde, erroldan kontuan hartzen ez diren hainbat datu jasotzeko ere balio dezake (hizkuntza minorizatuaren presentzia, nazio gabeko estatuaren presentzia, etab.).
- Galdetegia erroldatzeko lekuan egongo da eta motza izango da. Jaioterri eta hizkuntzari buruzko galdera bana, horiek harremana gerturatuko dute berarengana zuzentzean.
- Galdetegia betetzea ez da derrigorrezkoa izango, borondatezkoa baizik.

Harrera gida

- Herriko kultura historia, ohitura eta baliabideak jasoko ditu besteak beste.
- Bizilagun berriari herriari buruzko informazioa ematea izango du helburu.
- Oso garrantzitsua izango da udal bakoitzak egoki irudituko zaion informazioa lantzea, baita Gizarte Zerbitzuetatik haratagoko ikuspegi batetik tratatu ere (kultura, kirol, hezkuntza, osasuna, artea eta bestelako baliabideak ere kontuan hartzea).

2. “Ongietorri” saioak: udaleko harrera protokoloa osatzearen, “ongietorri” saioak egingo dira helburu hauekin: bizilagun berriari informazio zehatzagoa ematea, hobeki ezagutzea eta harremanen bidezko harrera zuzena izatea. Saio hauetan garrantzitsua da alkateak protagonismoa hartzea, horrek herritarren aitortzen instituzionala adierazten baitu.

Hori dela eta, udaletako baliabideak ere kontuan hartu beharko dira. Eredu honetan harrera saio desberdin batzuk jaso dira, gaur egun Gipuzkoan martxan dauden esperientziei dagozkienak.

a. **Lehen “Ongietorri” saioa:** saio honek amaiera emango dio udaletako harrera protokoloari. Saio honek, bestalde, bizilagun berriari herrira ongietorri formala ematea du helburu.

- i. Horretarako, ezinbestekoa izango da bertan ondokoak izatea: alkatea (edo zinegotzi bat), harreraz arduratuko den teknikaria eta talde exekutiboko taldeko ordezkari bat eta talde motorreko beste bat.
- ii. “Ongietorri” bilera aberasteko asmoz, lagungarria izango da eragileak eta beste erakundeetako ordez-



kariak bertan egotea.

iii. Saio honetan, elkarren ezagutza gertatuko da, udala (edo herria) bizilagun berriei aurkeztuko zaie, eta bizilagun berria udalari. Horrez gain, oinarrizko informazioa eman eta beharrak jasoko dira.

iv. Lehen “ongietorri” saio honek, etorkizuneko saioak diseinatzeko balioko du.

v. Bizilagun berrien kopuru jakin bat herrira heltzean gauzatuko da “Ongietorri” saioa.

NOLA EGIN?

Lehenengo “Ongietorri” saioa

- Bertan hauek parte hartuko dute: alkatea/zinegotziak, udal barneko harreraren arduradun teknikoak eta lantalde bakoitzeko ordezkariak (lantalde exekutiboa eta talde motorra).

Helburuak:

- Oinarrizko informazioa ematea bai herriaz, bai udal funtzionamenduz.
- Euskal Herriari buruzko azalpen txiki bat ematea.
- Udalak elkarbizitzari buruz duen ikuspegia bizilagun berriekin partekatzea.
- Bizilagun berriak ezagutzea.

b. **Sakontzeko “ongietorri” saioak:** Behin ezinbesteko ongietorria emateko saioa eginik eta udalaren (herriaren) eta bizilagun berrien arteko oinarrizko ezagutza eginik, ezagutza horretan sakondu nahiz, saio gehiago egitea planteatzen da bizilagun berria herrira eta herria bizilagun berriarengana hurbiltzeko. Hala, harrera protokoloan nola ongietorri bileran emandako informazioan bilduko dira saio horietan jorratu beharreko gaiak eta dinamikak. Udal bakoitzak erabakiko du saio hauek zein formatutan egin; guk eredu honetan **bi aukera** planteatzen ditugu:

i. Ongietorri saioaren formatuan saio gehiago egitea (kopurua udalen esku, ideala 5 bat saio).

1. Saio bakoitzean gai edo esparru bakarra tratatuko da.

2. Gai posible batzuk hauek dira: kultura, historia eta hizkuntza; kirola eta aisialdia; hezkuntza, ikasketak, homologazioak eta eskolak haurrentzat nahiz helduentzat; lana eta prestazioak; herritartasuna eta eskubide-betebeharrak; herriko sare sozialak, eta, harreman esparruak; osasuna, osasun eredu, instalazioak; udala, bertako sailak eta zerbitzuak, nahiz bestelako erakunde eta zerbitzuak, emakumeen eskubideak, zaintza, eta ahalduak baliabideak, etab.

3. Udal sailek eta herriko erakundeek zein eragileek landuko lituzkete saio bakoitzean jorratu beharreko gaiak.

ii. Saio gehiago egitea prestakuntza baten bidez. Aukera honetan, aurrekoan bezalaxe, hainbat gai jorratuko lirateke, baina, 2-3 hilabeteko prestakuntza baten barnean lantzekoak. Era honetara:

1. Gaietan gehiago sakonduko da.

2. Bizilagun berrien eta prestakuntza emango duten pertsonen inplikazioa; elkarren ezagutza areagotu egingo da.

3. Hiru hilabeteko proiektua izango da eta, behin amaiturik, ziurtagiri bat emango zaie bizilagun berriei.

NOLA EGIN?

Sakontzeko “Ongietorri” saioak. Harrera integrala.

- Udalak oinarrizko harrera egin ostean aktibatzen dira.

- Herriko eragile eta erreferentziako pertsona guztien artean antolatu eta koordinatuko dira; eta bizilagun berriek herriko jendea ezagutuko dute (lantalde exekutiboa).



- Edukiak teknikari eragile eta erreferentziako pertsona guztien artean adostu eta erabakiko dira (lantalde exekutiboan). Aurreko fasean identifikatutako beharrak eta nahiak kontuan izanik, plangintza bat moldatuko dute denen artean.
- Saioak erakargarriak, motzak eta eraginkorrak izango dira. Eta saioetan parte hartu dutenei, ziurtargiria emango zaie.

Harrera eta ongietorri saioez gain, ezinbestekoa izango da udalak martxan jartzea elkarren ezagutza, elkarren aitortza eta elkarbizitza sustatuko dituen politikak. Horrez gainera, herritartasuna bermatuko du eta aukera berdintasuna nahiz desberdin izateko eskubidea bultzatuko ditu, horretarako programak eta proiektuak abiaraziz. Horrek, herritartasuna onartzeaz gain, bermatzea ere ahalbidetuko du.

GENERO IKUSPEGIA

Ongi etorri bileretara familia guztia joatea bermatuko da, ez soilik gizonezkoak.

Zainketa ardurekin uztartzea errazteko neurriak hartzea gomendatzen da, ordutegiari dagokionez, bestalde, umeei joateko aukera emango da.

Herriko informazioa emango duten pertsonen artean emakume eta gizoneoreka bilatuko da, eta, jatorri ezberdineko pertsonak egotea bermatuko da.

EUSKARA

Saio hauetan euskara izango da hizkuntza, posible ez den kasuetan euskararen inguruko hausnarketa bat egongo da, hizkuntza aniztasuna ere aipatuko delarik.

2.2. Herri txikietako udal barneko lehen harrera

Herri txikietako udal barneko lehen harrera gauzatzeko, herri handi eta ertainetan egin beharreko urrats berberak egingo dira, zenbait ñabardurarekin:

- Herri txiki bakoitzean lantaldeak sortzean baliabide nahikorik ez dela ikusten bada, aurretik dauden partaidetza egiturak aprobetxatuko dira lana aurrera eramateko. Jadanik badauden egitura horietatik abiatu beharko lirarteke prestakuntza, jendarteratzea eta protokoloaren eraketa.
- Baliabide gutxi dituzten herrietan udal barneko protokoloa eskualde mailan eratuko da:
 - › Zerbitzuak, astean edo hilean behin emango dira herrian.
 - › Urgentzia izanez gero, eskualdeko herri nagusian emango da zerbitzua.
- Informazioa ematerakoan, ahalegin berezia egin beharko da eskualde mailako funtzionamendua erakusteko:
 - › Zerbitzuen antolaketa.
 - › Herriaren kokapena ezagutarazi: eskualdea edo aldea azaldu.
- Sentsibilizazio edo prestakuntza saioak eskualde mailan egingo dira.



- Alkateak edo arloko zinegotziak, “ongietorri bilera” antolatzen hastean, bi aukera izango ditu:
 - › Bilera horiek inguruko herriekin batera egitea.
 - › Bilera egiteko bizilagun berrien kopuru jakin bat bildu zain gelditzea

3. UDAL ERAGILEEN FUNTZIOAK

Sare honen funtzionamendua bermatzeko, ezinbestekoa da eragile bakoitzaren funtzioak argi izatea. Teknikariak hasieran egingo duen harrera zirriborroaren arabera aldatuko dira funtzioak, baina orokorrean hauek dira planteatzen diren zereginak:

3.1. Udal eragileen funtzioak

Herriko alkatea:	<ul style="list-style-type: none">- Bizilagun berriei ongietorria zuzen ematea: "Ongietorri" eskutitzaren bitartez; eta ahal den kasuetan, udal ordezkariaren eta etorri berriaren arteko bileran parte hartuz.- Erreferentziako pertsona da. Modu honetan, erreferentzialtasuna landuko litzateke.- Bizilagun berrien harrerak udalaren lehentasunetako bat izan behar du.- Dena den, herri bakoitzak erabakiko du sarea aktibatzeke lana nork egingo duen.- Sentsibilizazio saioetan parte hartzea.
Arloko zinegotzia	<ul style="list-style-type: none">- Alkateak ezin duen kasuetan, alkatearen lana bere egin dezake.- Udal batzarretan jatorri aniztasunari dagokionaz arduratzea.- Elkarbizitza mahaian edo sarean parte hartzea.- Sentsibilizazio saioetan parte hartzea.
Gainerako zinegotziak	<ul style="list-style-type: none">- Alkateak eta arloko zinegotziak egiten dutenaren berri zuzena izatea.- Zeharkakotasuna bermatzea eta kultura eta jatorri aniztasuna aintzat hartzea beren arloetan.- Sentsibilizazio saioetan parte hartzea.

3.2. Udal teknikarien edo langileen funtzioak

Arduradun teknikoa:	<p>Udal barneko langile bat (udalaren arabera teknikari bat edo beste hautatuko da)</p> <p>Funtzioak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Harrera zirriborroa diseinatzea.- Harrera zirriborroa, udalean nahiz jendartean zabaltzea eta hausnarketa edo sentsibilizazio saioak dinamizatzea.- Elkarbizitzarako mahaia dinamizatzea eta bertan behin-behineko harrera lantzea.- Harrera eratzeko prozesuan, bakoitzak harrera protokoloan nahiz harrera saioetan bere funtzioa betetzen duela bermatzea.- Bi lantaldeetako dinamizatzailerak izatea.- Materialaz arduratzea.
----------------------------	---



Aniztasun/ migrazio teknikaria	Udalean aniztasun eta migrazio teknikaria egotekotan, horrek hartuko luke ardura teknikoak.
Erroldako langileak:	Lehenengo harremana berak izango du auzokide berriarekin; figura oso garrantzitsua da. Funtzioak: <ul style="list-style-type: none">- Auzotar berria udal zerbitzuetara bideratzea.- Errolda berri bat dagoen bakoitzean, herriko alkateari jakinaraztea (hori, herri bakoitzaren errealitatearen arabera egokituko da).- Bizilagun berriaren beharrak jasotzea (Galdetegia).- Bizilagun berriaren behar eta nahien arabera, herriko errealitatearen eta baliabideen berri ematea (“Ongietorri Gida” banatzea).- “Ongietorri” bilera egongo dela jakinaraztea.- Sentsibilizazio saioetan parte hartzea.- Lantaldean parte hartzea.
Gizarte zerbitzuetako langileak	Funtzioak: <ul style="list-style-type: none">- Harrera asistentziala burutzea.- Lantaldean parte hartzea.
Beste zerbitzuetako langileak eta/edo teknikariak	Zerbitzu guztietako langileek harrera ezagutu behar dute, eta etorri berriekin lan egiteko hausnarketa burutua izan behar dute. Funtzioak: <ul style="list-style-type: none">- Harrera egitea, zerbitzu bakoitzaren eskumeneren arabera.- Beraien lanean jatorri aniztasuna zeharkakotasunez kontuan hartzea. Adibidez, Kultura teknikariaren kasuan, herrian dauden kultura desberdinak kontuan hartu beharko ditu kultura programa egiteko garaian. Eta gauza berbera beste arlo guztietako teknikariek.- Lantaldean parte hartzea.
Euskara teknikaria	Protagonismo berezia izango du, harrerari dagokionez euskararen gaia erdigunean kokatzen baita. Funtzioak: <ul style="list-style-type: none">- Bere programetan herritar berriak eta jatorri aniztasuna kontuan hartzea.- Euskarara hurbiltzeko tresnak herritar berrien eskura jartzea.- Euskara lantzeko tresnak gainerako udal langileen eskura jartzea.- Lantaldean parte hartzea.